
PRENTSA OHARRA

BILBAOARTEK MALU HATOUM BRASILDARRAREN 'AQUÍ.FEROZ' SOINU-INSTALAZIOA ERAKUTSIKO DU

Izaera ekologista duen proposamen hau ekainaren 3a arte egongo da ikusgai udal zentroko erakusketa aretoan

(Bilbon, 2022ko maiatzaren 6an). Bilboko Udalaren ekoizpen zentroak, BilbaoArte Fundazioak, Malu Hatoum-en «*AQUÍ.FEROZ*» erakusketaren ateak ireki ditu. 2021ean beka jaso zuen artista brasildarrak eta soinu-esperientzia bat proposatu du Urazurrutiako Aretoarentzat. Bere narratibak planetako akuiferoek bizi duten mehatxuz kontzientziatu nahi du bisitaria, Brasilgo zentral hidroelektriko baten kasu espezifikoa adibide gisa hartuz.

Udal-zentroko erakusketa-aretoa planetako akuiferoak babestearen aldeko ibilbide bisual eta soinudunaren kokaleku bihurtuko da maiatzean zehar. «*AQUÍ.FEROZ*» soinu-esperientzia murgiltzailea da; bidaia hasteko, ente totemiko batek egingo du bisitariaren harrera, zomorro, teknologia eta gizakiaren arteko izaki hibrido bat, ibilbideari amaiera ematen dion «*Ouvi-las*» (2021) bideo-performancean ikusi ahal izango den janzkerarekin jantzita.

Hainbat bozgorailu soinu-igorle eta soinu-eskultura bihurtzen dira aldi berean, erakusketari, alderdi bisualari dagokionez, azken ukitua ematen diotelarik, kolore urdinez eta berdez inguratuta baitaude. Hatoumek lurralde existentzial gisa deskribatzen du instalazio zentrala –edo aldi baterako eremu autonomoa, Hakim Bey idazleak esango zukeen bezala–, bisitaria ibaietako, zenoteetako, ur-jauzietako, ur-begietako eta inguruneke urekin lotzen duen soinu-bidea.

Soinu-instalazioaren audioak Brasil, Txile, Espainia eta Mexikoko bioma akuiferoetan grabatu ziren Refluxus Kolektiboaren lankidetzarekin. 2021. urte amaieratik aurrera garatzen hasitako soinu-esperientzia hau artistak lantzen jarraitzen duen proiektu irekia da.

Azkenik, «*Ouvi-las*» bideo-performanceak Juruna eta Kaiapós herri indigenak bizi diren eskualdearen kasu espezifikoa jorratzen du, Pará estatutik Mato Grossoraino (Brasil) hedatzen dena. Artistak Belo Monte presaren ondorioz Brasilgo Xingu ibaiaren inguruko ekosistema laster desagertuko dela eta lurrak desjabetuko dizkietela adierazi nahi du. Malu Hatoumek, akzioaren, ahotsen, soinuen eta musikaren bidez, 2019ko azaroan

eraikitzen amaitu zen hidroelektriko honek suposatzen duen mehatxuaren historia kontatzen du.

Artistak 2021ean egoiliar bezala garatutako pieza nagusiak –tresna indigenetan oinarritutako bi flauta eta *Casco sonador* edo *Tecnococar* bat– zentroko MediaLab tallerrean ekoitzi ziren, eskaneatutako originalen eta eredu digitalen 3D inprimaketetatik abiatuta. Obra horiek proiektioan, jantzi bezala, zein erakusketa ireki eta ixten duen figuran egongo dira presente.

Erakusketa aretoa astelehenetik ostiralera egongo da ikusgai, 17:30etatik 20:30etara, ekainaren 3a arte. Jaiegunetan eta astebukaeretan, itxita egongo da.

ARTISTARI BURUZ

Malu Hatoum (Brasil, 1976). Soinu-artista, abeslaria, performerra, idazlea eta ekoizlea da. Klauss Vianna dantza garaikideko teknikan eta Arte Integratiboan graduatua. Psikologian lizentziaduna São Pauloko Unibertsitatean eta Soinu Artean Masterra Bartzelonako Unibertsitatean. Brasilgo Ikeda Abesbatza Filarmonikoan soprano gisa aritu da, São Caetano do Suleko Arteen Fundazioan (São Paulo, Brasil) kantu lirikoko kontzertuetan eta Henry Purcellen Dido & Aeneas operan kantu lirikoa ikasten zuen bitartean. Refluxus Kolektiboaren sortzaileetako bat da.

Bere ibilbidean zehar musika klasikoarekin espermentatu du, beste gauza askoren artean, eta hau bere ekoizpenean ikerketa-prozesu garaikide gisa islatzen da, hala nola soinu-instalazioak, musika esperimentalak eta performanceak landuz. Disziplinarterko artista bezala, ahots-gorputz baliabide adierazkorrean du interesa. Bere ikerketa soinu entzute eta ikerketa prozesu desberdinetara eramaten du, obrak hainbat lengoia artistikotan sortuz.

Informazio gehiago / Más información



Fundación BilbaoArte Fundazioa

Prentsa eta komunikazioa / Prensa y Comunicación

Alicia Prieto | 607 606 458 | prentsa@bilbaoarte.eus

NOTA DE PRENSA

BILBAOARTE EXPONE LA INSTALACIÓN SONORA 'AQUÍ.FEROZ' DE LA BRASILEÑA MALU HATOUM

Esta propuesta de carácter ecologista podrá visitarse hasta el 3 de junio en la sala de exposiciones del centro municipal

(Bilbao, 6 de mayo de 2022). La Fundación BilbaoArte, centro de producción del Ayuntamiento de Bilbao, abre las puertas de la exposición «*AQUÍ.FEROZ*» de Malu Hatoum, becada durante 2021. La artista interdisciplinar brasileña propone una experiencia sonora dentro de la Sala Urazurrutia, cuya narrativa pretende concienciar al visitante sobre la amenaza bajo la que viven los acuíferos del planeta, ejemplificada por el caso específico de una central hidroeléctrica en Brasil.

La sala de exposiciones del centro municipal se convierte durante el mes de mayo en el emplazamiento de un recorrido visual y sonoro en defensa de los acuíferos del planeta. «*AQUÍ.FEROZ*» es una experiencia sonora inmersiva cuyo viaje comienza con la recepción del visitante por parte de un ente totémico, híbrido de bicho, tecnología y humano, ataviado con la indumentaria que podrá verse en la video-performance titulada «*Ouvi-las*» (2021) con la que culmina el recorrido.

Altavoces de diversos tipos se convierten en emisores de sonidos a la par que esculturas sonoras, que dan el aspecto visual final a la muestra, rodeados de tonos de azul y verde. Hatoum describe la instalación central como un territorio existencial –o zona autónoma temporal como diría el escritor Hakim Bey–, en forma de camino sonoro que conecta al visitante con las diferentes aguas de los ríos, cenotes, cascadas, ojos de agua y su entorno.

Los audios de la instalación sonora fueron grabados en los distintos biomas acuíferos de Brasil, Chile, España y México, en colaboración con el Colectivo Refluxus, del que es co-fundadora. Esta experiencia sonora que comienza a desarrollar a finales de 2021 constituye un proyecto abierto sobre el que la artista continúa trabajando.

Finalmente, la video-performance «*Ouvi-las*» aborda el caso específico de la región en la que viven los pueblos indígenas Juruna y Kaiapós, que se extiende desde el estado de Pará hasta Mato Grosso (Brasil). La artista pretende sensibilizar sobre la inminente extinción del ecosistema y desapropiación de tierras alrededor del río brasileño Xingu por culpa de la represa de Belo Monte, tercera central hidroeléctrica de mayor potencia en el planeta. Malu Hatoum cuenta a través de acción, voces, sonidos y música la historia de la amenaza de esta hidroeléctrica cuya construcción finalizó en noviembre de 2019.

Las principales piezas desarrolladas por la artista durante su residencia en 2021 –dos flautas basadas en instrumentos indígenas y un *Casco sonador* o *Tecnococar*–, fueron producidas en el MediaLab del centro a partir de la impresión 3D de originales escaneados y modelos digitales. Estas obras estarán presentes tanto en la proyección, en forma de vestuario, como en la figura que da paso al recorrido, abriendo y cerrando la exposición.

La sala de exposiciones podrá visitarse de lunes a viernes de 17:30 a 20:30 horas, hasta el 3 de junio. Festivos y fines de semana, cerrado.

SOBRE LA ARTISTA

Malu Hatoum (Brasil, 1976). Artista sonora, cantante, performer, escritora y productora. Cofundadora del Colectivo Refluxus. Graduada en técnica de danza contemporánea Klaus Vianna y en Arte Integrativo. Licenciada en Psicología por la Universidad de São Paulo y Máster en Arte Sonoro por la Universidad de Barcelona. Ha actuado como soprano en el Coro Filarmónico Ikeda de Brasil, mientras estudiaba canto lírico en la Fundación de las Artes de São Caetano do Sul (São Paulo, Brasil), en conciertos de canto lírico y en la ópera *Dido & Aeneas* de Henry Purcell.

En su trayectoria experimenta con la música clásica, entre muchas otras, lo que acaba reflejándose en su producción en forma de procesos investigativos contemporáneos como la instalación sonora, la música experimental y performance. Como artista interdisciplinar se interesa por la voz-cuerpo como medio expresivo. Su investigación gravita hacia diferentes procesos de escucha e investigación sonora, produciendo obras en distintos lenguajes artísticos.

Más información / Informazio gehiago



Fundación BilbaoArte Fundazioa

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | prentsa@bilbaoarte.eus